

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEKO ARGITALPENAK - MONOGRAFIAK ORIGINALAK HAUTATU ETA ONARTZEKO ARAUAK

1.- Arau hauetan ezarritakoa aplikatuko zaie monografiaren originalei, hots, Vianako Printzea Erakundera beren borondatez erakunde horretan lanak argitaratu nahi dituztenek bidalitakoei.

2.- Erakunde horretara bidalitako originalei dagokienez, Nafarroako Gobernuak Baliabideen eta Garapen Estrategikoaren Ataleko Argitalpen Bulegoak lehen hautaketa egingen du; egileei itzuliko zaizkie zalantzarik gabe Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak argitaratzen dituen gaien artean sartzen ez diren lanak.

3.- Jasotako gainerako originalei dagokienez, Nafarroako Kultura Kontseiluko Argitalpen batzordeko kideek ebaluazio-txosten idatziak egingen dituzte aurkeztu diren originalen gainean edo aurkeztutako originaletan aztertutako gaietan adituak diren kanpoko berrikusleak bilatuko dituzte; berrikusle horiek ez dira Kontseiluko kide izanen.

4.- Original bakoitzaren gaineko bi txosten eskatuko dira. Bietan balorazio bera egiten bada, Argitalpen batzordearen erabakia zehaztuko dute, salbu eta hark berariaz eta modu arrazoituan kontrako erabakia hartzen ez badu. Bi txostenen artean desadostasunak badaude, erabakia Argitalpen batzordeak hartuko du eta, egoki joz gero, hirugarren txosten bat eskatzen ahalko du.

5.- Nolanahi ere, onartutako originalen hurrenkera eta ekoizpen-prozesuko lan-egutegiaren gaineko azken erabakia Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuko aurrekontuen eskuragarritasun ekonomikoen eta Argitalpen Bulegoaren ahal teknikoen mende izanen da.

6.- Txostenak –beti idatziak izanen direnak– Kultura Zuzendaritza Nagusiak finkatutako zenbateko batez ordainduko dira. Argitalpen batzordeko kideek txostenak egiteagatik ordainsariak eta kanpoko edozein orraztailek jasotakoak berberak izanen dira.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak berak txosten horiek egiteko eredu orientagarri bat emanen du eta hartan zehaztuko dira orraztaileek epaitu beharreko alderdiak.

7.- Argitalpen batzordeko kideek, batzordekide diren bitartean, ez dute Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak argitaratzeko originalik aurkezten ahalko.

Argitalpen batzordeko kideren batek, izendatu aurretik, editatzeko bidean dagoen originalen bat aurkeztu izan balu, prozesua ez litzateke etengo.

8.- Argitalpen batzordeak urtean bi bilera egingen ditu, gutxienez.

9.- Baliabideen eta Garapen Estrategikoaren Ataleko Argitalpen Bulegoa arduratuko da prozesua koordinatzeaz. Honako hau egingen du, gutxienez: aurkeztutako originalak hartzea, zaintzea eta ebaluatzaileei igortzea; enkargatu eta jaso diren berrikuspen-txostenak artxibatzea, eta txosten horien inguruko hartu-emanak izatea.

10.- Arau honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko Vianako Printzea Erakundearen ekimen zuzenez edo enkarguz egindako argitalpenei, hots, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuetako programei edo haiek antolatutako ikuskizunei lotutakoei.